



**GAZTE ETA HELDUENTZAKO KIROL-JARDUERAK**  
**IZEN-EMATEA BERRITZEA – IZEN-EMATEA (2. LAUHILEKORAKO)**

Gazte eta helduentzako kirol-jardueretan parte hartzen ari zareten guztioi jakinarazten dizuegu izen-ematea berritu behar duzuela 2. lauhilekorako 012 INFOLOCAL TELEFONORA edo 948 012012ra deituta. Kirol jarduerak ondokoak dira: mantentze soinketa, aerobika, yoga plus, yoga, tonotif, GAP, bizkar osasuntsua, karatea gazteentzat, zumba, aeropump, gimnastika hipopresiboa eta pilates.

**1. IZEN-EMATEA BERRITZEA (jarduera eta taldea/ordutegia mantenduta)**

**Kirol jarduera bera ordutegi berean** egin nahi duzuenok **012 telefonora** deitu beharko duzue.

Izena berritzeko egunak: 2018ko **urtarrilaren 9tik 16ra (biak barne)**. Egun izena emanda zaudeten guztiei egun horietan tokia gordeko zaizue; baina urtarrilaren 24etik aurrera ez da halaxe gertatuko, izena emateko epe berria irekiko baita taldea eta/edo jarduera aldatu nahi duen ororentzat eta egun izena eman gabe dagoenarentzat.

Hona hemen egin behar dena izena emateko:

- ✓ **012 INFOLOCAL** telefonora deitu eta izen-ematea berretsi. Une berean ikastaroa ordaindu beharko duzue kreditu-txartelaren zenbakia emanez, ikastaroaren zenbatekoa bankuko kontuan ken diezazueten.

Ezin izanen da ordaindu banku bulegoetan, soilik kreditu-txartelaren bitartez.

**2. JARDUERA EDO/ETA TALDEA/ORDUTEGIA ALDATZEA eta IZEN-EMATE BERRIAK**

Jarduera (edo taldea eta/edo ordutegia) aldatu nahi duzuen guztiek, bai eta 1. lauhilekoan izena eman ez baina orain halaxe egin nahi duzuenek ere, urtarrilaren 24etik aurrera Herritarrak Hartzeko Bulegora jo dezakezue -goizeko 8:30etik 14:00etara- eta bertan izena eman (errolatugabeek, izen-emate berrietarako, urtarrilaren 25etik aurrera).

**3. 2018. URTEKO PREZIOAK**

Ez dira aldatu 2018rako prezioak.

- Astean ordubete:	errolatuek	<b>27,00 €</b>	errolatugabeek	<b>43,00 €</b>
- Astean 2 ordu:	errolatuek	<b>54,00 €</b>	errolatugabeek	<b>87,00 €</b>
- Astean 3 ordu:	errolatuek	<b>81,00 €</b>	errolatugabeek	<b>130,00 €</b>

Gehienez 15 pertsona taldeko (gim. Hipopresiboa, yoga plus eta pilates):

- Astean ordubete:	errolatuek	<b>51,00 €</b>	errolatugabeek	<b>81,00 €</b>
- Astean 2 ordu:	errolatuek	<b>101,00 €</b>	errolatugabeek	<b>161,00 €</b>

Atseginez agurtzen zaituztet.

**David Armendáriz Núñez**

*Jarduera Fisikoa, Kirola eta Gazteriaren Batzordeburua*

**012 INFOLOCAL TELEFONOAN edo 948012012 telefonoan IZENA EMATEKO ORDUAK**

Astelehenetik ostiralera (8:00etatik 19:00etara)

**2018ko URTARRILAREN 9tik 16ra (IZEN-EMATEA BERRITZEKO)**

**HERRITARRAK HARTZEKO BULEGOAN**

**BERTAN IZENA EMATEKO**

Astelehenetik ostiralera (8:30etik 14:00etara)

**URTARRILAREN 24ean (JARDUERA, TALDEA ETA/EDO ORDUTEGIA ALDATZEA, ETA ERROLDATUEN IZEN-EMATE BERRIAK)**

**URTARRILAREN 25ean (ERROLDATU GABEEN ETA EDOZEIN PERTSONA INTERESATUEN IZEN-EMATE BERRIAK)**